

Seriesa osatzen duten kapituluak

Antzak -1 -

Antzak -2 -

Unorea -1 -

Unorea -2 -

Taraxiak -1 -

Taraxiak -2 -

Anadiozko kantakizumak -1 -

Anadiozko kantakizumak -2 -

Ezkantza

Maitasun

Bilatz hartxiak

Herminia



Skanta bilduma txikia

Unorea -2 -

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILAREN
URGUNTZAZ EGINA.
EIMA Programa 1996.

AURKEZPENĀ

Kanta bilduma txikia bideo seriea aurkezteko Andoni Egañak Jose Inazio Ansorenaren "Euskal kanta" liburuari egiten dion hitzaurretik esaldi batzuk hona aldatuko ditut:

(...)

"Ze polita den bat altutik beste bajutik edo hango hura ez altutik ez bajutik, letran zer datorren asmatuaz, aldamenekoari belarria itsatsiz... kantuan jardutea!"

(...)

"Herri-kantak dira herri honen biziera eta sentieraren ispilurik onena. Eta euskaldunok, geure zorionerako, ehundaka, mila, herri-kanta ditugu. Askotan, ez dakigu nork eginak diren. Ez dakigu letra zehatz-mehatz nola den, edo jakin arren zer esaten ari garen ez dakigula kantatzen ditugu. Ondo gureak dira halere!"

Hauxe itzateke bideo seriearen helburu nagusia. Euskal kanta herrikoiak hamabi eta hamasei urte arteko ikasleei erakustea eta beren arteko bilkuretan kanta ditzaten aholkatzea.

Kantatzearen ludikotasunaz ballatuta, beste hiru helburu didaktiko bete nahi dira:

IRIZPIDE NAGUSIAK

Serie honetan erakusten diren kantak aukeratzean hainbat irizpide izan ditugu kontuan. Hona hemen kontuan izan ditugun irizpideak zerrendatuta:

HIZKUNTZA
Ikasleek eskolaurrean eta OHOKo lehen kurtsuetan kantuz ikasten dute. Helduen euskalduntze prozesuan aritu izan garenok, ongi baino hobeto dakigu, zein emaitza onak lortzen diren kanten bidez.
Orduan, zergatik ez erabili gure kantak DBHN hizkuntzaren irakaskuntzaren osagarri gisa?

1.- Mozkorra edota alkohola edatea goraiatzan duten kantak bazterzea.

2.- Emakume, kultura edo arrazen aurkako aipamen iraingarriak dituzten kantak bazterzea.

3.- Kanta oso ezagunak hain ezagunak ez direnekin tartekatzea.

4.- Lagun artean kantatzeko abagunea eskaintzen duten doinuak hobestea.

5.- Belarriarentzat oso arrotz gertatzen ez badira batipat, doinu herrikiak erakustea.

6.- Artazuriketak deritzen kantak ere kanpoan utzi beharrean gara.

7.- Erronda, eliz eta haur kantak alboratzea, beste serie batosatzeko beste ematen baitute.

Horrela eraturako galbahetik kanta guztiak pasatu ondoren, kantariekin hitz egin dugu eta hamaika kanta baztertu behar izan ditugu ez daudelako harmonizaturik.

LITERATURA

Euskal ahozko literatura benetan aberatsa da. Bai kalitatearen aldetik, bai gure literaturaren historiaren berri ematen digulako. Azken bi, hiru hamarkadetan, euskal kantariei esker antzinako poesía hori edozein musika dendatan aurki dezakegu. Haiengatik izan ez balitz, agian, galdurik izango genuke.

MUSIKA

Bideo seriean erakusten diren kanten melodiak oso sinpleak direnez, musikaren oinarriko arauak ikasteko baliogarriak dira. Besteak beste, musikaren munduan erabiltzen diren hiztegi eta zeinuak, erritmoak, eskalak etab.

MUSIKA

Adierazpen artistiko gisa, musikak **perzeptziozko** eta **adierazpenezko** alde bikoitza du.

Perzeptziozko eremuaren baitan zenbait gaitasun garatu behariko da:

—Entzute aktiboa, kualitate musikalak bereizteko.

—Musikaren esanahia arretaz entzutea, musika lanen elementuen arteko erlazioa igeritzeko.

—Guztizko memoria, soinu esperientziak gogoratu eta oroitarazteko.

Gaitasun hauen garapena ikasleen esperientzia musikalen aberastasunez baldintzatuta dago.

Adierazpenezko gaitasuna soinuen bitartez beren sentimenduak adieraztea ahalbidetzeko.

—Ahotsa, kantaren jardura musikalaria eramaten gaituen berezko tresna da eta musika heziketan adierazpen gaitasunak garatzeko oinarritzko elementua, musika tresnekin batera.

—Inprobisazioak elementu garrantzitsua izan behariko du ahots, gorputzezko edo instrumentuzko soinuen mundua libreaki esploratzeko baliabide gisa.

—Adierazpen artistiko orok kode edo adierazpen lengoaiak bat behar du. Musikaren errealitatean sartzeko beharrezkoa izango da kode hau ezagutzea.

—Musika soinuen konbinazioen bitartez adierazten da. Lengoaia nonen sakontasun eta eskurapenak ikasleei musika obraren estetika ulertzea ahalbideratuko die.

Helburu orokorrak

- 1.- Ahotsa erabiliz eta bere ideiak eta sentimenduak adieraztea.
- 2.- Musika lanak sorkuntza artistiko eta ondare kulturalerako adibide bezala aztertzea.
- 3.- Musika ezagutzeko eta hartaz gozatzeko iturri desberdinak autonomiaz erabiltzea.
- 4.- Jarduera musikaletan parte hartuz, besteek ekarpenez sortutako aberastasunaz jabetzea.

Edukiak

2. *Multzoa: adierazpena eta komunikazioa*

A) Kontzeptuzko edukiak

—Ahotsen sailkapena.

—Eritimoa, melodia, harmonia, literariotasuna eta interpretazioa.

—Abesti motak eta ezaugarriak. Tradiziozko euskal kantak. Errepertorioa.

B) Prozedurazko edukiak

—Erlazioa, amasketa, artikulazioa, erresonantzia eta intonazioa.

—Giza ahotsak bere tinbrearen arabera. Ahots taldeak

—Melodikoa, testu eta eskema eritmikoen gainean, eta alderantziz.

—Melodikoa eskema harmonikoen gainean.

—Abestien eskema formalararen analisia: esaldiak, kopia leloa, erreplikapenak.

C) Jarrerazko edukiak

- 1.- Ahoiz teknika baloratu norberaren ahotsa menperatzeko oinarri gisa.
- 2.- Banakako nahiz taldeko ahozko improbisazioak balioetsi eta horietaz gozatzea.
- 3.- Kantu interpretazioa baloratzea eta besteen aurrean irekia izatea erlazioa susmatzeko.
- 4.- Taldean gustora parte hartzea, ideia aurkeztuz eta taldearen hobekuntza bultzatuz.
- 5.- Interpretazioen aurrean sentikortasuna eta jarrera kritikoa agertzea.
- 6.- Edozein nazioko folkloreako abestiak errespetatu eta baloratzea.

Ebaluaziorako irizpideak

- 1.- Taldeko kantu jardueretan parte hartzea, norberaren adierazpen eta intonazioa taldearen soinuan mailan egokitu.
- 2.- Gelako musika jardueren testuinguruan musika irakurtzea, interpretazio eta entzute zereginen euskarri gisa.
- 3.- Ahoz abesti sinple eta melodia laburrak laguntzea, tonika, dominante eta subdominante graduak behar bezala erabiltz.

HIZKUNTZA ETA LITERATURA

"Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan Hizkuntza eta Literaturaren azken helburua ikasleek hizkuntzaren oinarriko ondoko lau trebetasunen menderapen pertsonalean aurrera egitea da: entzutea, hitz egitea, irakurtzea eta idaztea. Ekintza pedagogikoa gaitasun hauek finkatzea zuzendura egongo da eta sakontasunean hedatzea, hizkuntzaren erabilera funtzionala bultzatuz, ahozkoa nahiz idatzizkoa, hau da, hizkuntza komunikazio eta irudikapen tresna eraginkor gisa erabiltzea."

Helburu orokorrak

- 1.- Ahozko eta idatzizko berbaldiak ulertzea, beren helburu desperdinak eta ekoizten diren komunikazio egoerak antzemanaz.
- 2.- Euskal Herriko euskalkiak ezagutu eta baloratzea, estereotipo soziolinguistikoak gaindituz eta elkar ukitzen direnean sortarazten dituzten arazoak kontuan hartuz.
- 3.- Poesiaren irakurketa eta idazkera komunikazio era eta kultur aberaste iturri gisa baloratu eta haieratik ateratako etekinaz baliatu eta gozatu.
- 4.- Literatur testuak eta asmo literarioa duten ahozko nahiz idatzizko testuak interpretatu eta ekoiztea, jarrera personal kritiko eta sortzaileetatik abiatuta.

Edukiak

2. multzoa: hizkuntza literaturan

Multzo honen oinarritzko helburua, garai eta toki guztietako literatur testuen irakurketan oinarritutako ulermena da. Irakurketa gozameneko sustatzeak ulermena eta adierazpenaren garapena dakar, eta irakurketa dokumentazio eta azterketarako urratsa izatea ahalbidetzen du.

Kontzeptuzko edukiak:

- Testu plana testuaren egitura globala bezala.
- Kohesio prozedurak.
- Testuaren ortografia: paragrafoko banaketa.
- Emima, bertsoaren lerro kopurua, lerro bakoitzaren silaba kopurua.
- Bertsoaren doinua irakurtzerakoan. Espresioa.
- Irudi linguistikoak, metaforak, alderakuntzak.

Prozedurazko edukiak

Ahozko eta idatzizko testuak ulertzeko prozedurak

- Irakurketa autonomoa atsegin eta aberaste kulturalaren iturri bezala.
- Prosa eta poesiazko testuen irakurketa espresiboa.
- Testuen gaia identifikatzea.

Ahozko eta idatzizko testuak ekoitzeko prozedurak.

- Testu batean garatu behar den edukiaren plangintza burutu.
- Koherentzia, gramatika eta ortografia arauak eta aurkezpen argia kontutuan hartu
- Norberaren ekoizpenen berrikuspen, ebaluazio eta zuzenketa sistematikoa.

Jarrerazko edukiak

- Testu baten aurrean eman daitezkeen interpretazio desberdinez jabetzea.
- Norberak idatzitako testuen gainbegiratzeak duen garrantzia baloratzea.
- Testu idatzia menperatzeak duen garrantzi soziala eta pertsonalaz jabetzea.
- Arraza, klase eta sexuzko aurreiritziak daramatzaten erabilera linguistikoan aurrean jarrera kritikoa garatzea.

Ebaluaziorako irizpideak

- 1.- Ikasleari interesatzen zaion literatura-testu bat bere osotasunean irakurri ondoren, zein testu motakoa den identifikatzea, oinarriko egitura elementu nahiz estilozko errekurtsioak ezagutuz eta gehien edo gutxien mailatzen diren alderdiei buruz iritzi pertsonal bat emanez.
- 2.- Norberaren ideia eta esperientziak asmo literarioa duten testuak ekoizteko erabiltzea. gelan landutako literatura lanak eredutzat hartuz.

- 3.- Hizkuntzaren mekanismo eta bere elementu formalei buruz (egokitzapen markak, testu egiturak, kohesio prozedurak, perpausen egitura, hitzen eraketa, irudi linguistikoak, erimak, doinua etab.) hausnartzea, besteen testuak ulertzeko eta norberarenak gainbegiratu eta hobetzeko gai izatearren.
- 4.- Irakurritako testuan euskalkien arteko ukipen fenomenoak identifikatu, lokalizatu eta deskribatzea, errealitate eleazizuna adierazpen soziokultural gisa errespetatuz.

Skantza bilduma txikiak nola erabili

Skantza bilduma txikiak klasean erabiltzeko proposamen bat egingo dugu jarraian. Arestian esan dugun bezala bere helburu nagusia ikasleengan lagun artean kantatzeko ohitura piztea, edo, halibat kasutan, agian, berpiztea da.

Ezertan hasi aurretik bideoaren atalen berri izatea komeni da. Bideoan bizpahiru kanta daude eta bakoitzaren lanketa honako atal hauez osatzen da:

- 1.- Aurkezleak kantaren egileari edo hitzen gaiari buruzko aipamen laburra egiten du.
- 2.- Errotulu bitartez kantaren ahapaldi bat edo biren hitzak pantailaratzen dira eta aurkezleak haien buruzko aipamenak egingo ditu edo aipatzekorik ez dutenak irakurri egingo ditu.
- 3.- Kantariak hitzei dagokien oinarriko melodia kantatu egingo du.
- 4.- Ondoren melodia bera baina modu softeatuan (DO-RE-MI eran) kantatuko du.
- 5.- Aurkezleak abesbatzak kantatuko duen bertsoari buruzko aipamen laburra egingo du.

Hizkuntza eta Literatura

ematen duen irakasleari proposamena:

Lehenbiziko lana Musika ematen duen irakaslearekin harremanetan jarri eta, bion artean, bideo bat aukeratzeari izango da.

Ondoren bideoa martxan jarriko dugu, eta kantaren lehen bi atalak ikusiko ditugu.

Bideoa ikusita, irakasleak kantaren bertso guztiak banatuko dizkie ikasleei.

Hau eginda honako urratsok proposatzen dira:

—Ikasleak taldeetan banatu eta olerkia irakur dezatela esango diegu. Ondoren, ulertzeko dituzten trabak argituiko ditugu. Jarraian olerkiak diotenaren laburpena egin dezatela esango diegu. Irakasleak agindutako epea bukatzean, talde bakoitzak bere laburpena besteen aurrian agertuko du. Agerpenaren ostean, eztabaida bidez, laburpen adostua osatuko dute denen artean.

—Hori eginda, talde bakoitzak irakurle bana aukeratu du, olerkia, klasearen aurrerian irakurtzeko. Gainerako kideei errespetua eta isiltasuna eskatuko diegu.

—Orain olerkian agertzen diren irudi poetikoak ateratzeko eskatuko diegu.

—Jarraian, olerkiaren egitura aztertuko dugu (errima, silaba edo oin kopurua, lerro

kopurua...).

—Hurrengo urratsetan olerkiaren egileaz mintzatuko gara, egilerik balu. Ez balu, ezer ez.

—Gero, olerkia egin zen garaiaz mintzatuko gara.

—Bukatzeke, bideoa berriro martxan jarriko dugu eta bosgarren atala jarrita, abesbatzarekin batera kanta kantatuko. Abesbatzak bukatzen duenean, bideoa itzaliko dugu eta ikasle eta irakasleak kantaren ahapaldi denak kantatuko dituzte.

Musika ematen duen irakasleari proposamena:

Lanketarekin hasteko ikasleek musikaren oinarriko kontzeptuak (hiztegia, partitura...) ikusita izan beharکو dituzte.

Lehenbiziko lana Hizkuntza eta Literatura ematen duen irakaslearekin harremanetan jarri eta bideo bat aukeratzea izango da.

Ondoren bideoa martxan jarri eta hirugarren eta laugarren atalak ikusiko ditugu. Alegia, oinarriko melodiarik eta solfeoari dagozkionak.

Abestien partitura bihurtuko dugu gida honetan, azken orrialdean, zerrendatzen diren liburuetako batean.

Ikasleak binaka jarriko ditugu. Bikote bakoitzari kantaren partitura bana emango diogu. Ikasleek hamar minutuko epea izango dute han agertzen dena irakurri eta do-re-mi erara kantariak kantatutako melodia gogoratzeko. Behar izanez gero berriro jarriko dugu bideoa.

Hamar minutuak pasatu direnean, irakasleak melodiarik buruz galde diezaiotela esango die ikasleei. Galderantzunen saio hau guzuzak argi geratu arte luzatuko da. Honekin, musikari buruzko azalpen eta iritzi guztiak agertu daitezkeen nahi da.

Dena argi gelditu denean, irakaslea ikasleentz aurtean jarriko da eta zuzendari papera egingo du. Ikasleak kantariak izango dira. Ikasitako

melodia, do-re-mi erara kantatuko dute denek batera bizpahiru aldiz buruz ikasi arte.

Melodia ikasia dutenean, irakasleak ikasle bikoite bakoitzari kantaren lehenbiziko bertso edo ahapaldia eta, kantak leloa balu, leloa ere, emango dio. Bideoa lehen utzi duen tokitik martxan jarriko du lehen kantak irauten duen arte. Horrela, ikasleek hitzak aurtean dituztela eta pantailian abesbatza kantari eta hitzak barrenean, kanta hitzez kantatu ahal izango dute, bai pantailari begira bai beren paperei begira.

Hau guztia eginda, irakasleak kantaren ezaugarriak buruzko azalpenak egingo ditu:

Alderdi musikaletik, (tonalitatea, konpasa, lastertasuna...)

Alderdi historikotik, (zein garaitakoa den, ze musika mola ziren garai hartan, orduko musiken ezaugarriak, kantari erantsi zaionaren erabilpena gizartean...)

Bukatzeko denon artean inprobisazioa joko dugu. Ahots berriak erantsiz oinarriko melodiarik, instrumenturen bat sartu akonpainamendu modura... Nahi beste joko egin daitezke, beti ere klasearen helburua hautsi gabe.

Seriea osatzeko erabili ditugun liburuak

Resurrección Mañá de Azkue
"Cancionero popular vasco"
-La Gran Enciclopedia Vasca- BI-1968

Alta Donostia
"Cancionero general" (lau liburua dira)

Jose Inazio Ansorena
"Euskal kantak"

Liburu hauetan kantaren hitzekin batera musikaren partitura agertzen da.

Hizkuntza eta Literatura ematen duenarentzat:

Alta Santi Oraindia
"Mila Euskal Olerki"
Karmeldar idazleak, Larrea-Amorebieta 1954

Jesus Maria de Leizaola
"Romances vascos y literatura prehistórica"
Editorial vasca Ekin. Buenos Aires-1959

Musika ematen duenarentzat:

Jose Manterola
"Cancionero Vasco"
Sendoa Donostia-1981

Jorge de Riezu
"Flor de canciones populares vascas"
Sendoa Donostia-1982

"Mendebaldeko baladak"
Liburua eta Ruper Ordorikak, Tapiak eta Bixente
Martinezek oraintsu argitaratu kasetea eskura daitezke.

Salteko euskal idazleen elkartera (SEIE)
"Herría oihuka"
Bilbo-1977